



Zer da baso-plangintza?

Helburu batzuk betetzeko xedez mendi batean denbora-tarte eta leku jakin batean garatuko diren jardueren plangintza da.

1 Mendiaren helburuak definitzea

2 Aztertzea zer egin den orain arte, zer dagoen eta nola dagoen

3 Datozen urteetan zer egingo den erabakitzea

Plangintzaren lehenengo urratsa da basoaren helburuak definitzea, basoaren ezaugarrien eta jabearen interesen arabera. Edonola ere, basoen multifuntzionaltasuna eta jasangarritasuna hartuko dira beti kontuan.

Interesgarria dena da kudeaketa-helburu desberdinak uztartzea. Adibidez, kalitatezko zuraren ekoizpena biodibertsitatearen sustapenarekin uztartu daiteke, eta baita familia-jardueretarako atsegina den ingurune baten garapenarekin ere.

Erabilera guztien bateragarritasuna lortzeko, funtsezkoa da erregulazio bat eta bete beharreko arau batzuk egotea.


Mendien plangintza biltzen duten dokumentuak Mendiak Antolatzeako Proiektuak edo Kudeaketa Plan Teknikoak deitzen dira. Dokumentu horietan honako hau jasotzen da: mendiaren helburuak, mendian dagoenaren kuantifikazioa -zuhaitzak dituzten eremuetan, hori baso-inbentarioaren bidez lortzen da;- eta datozen urteetan gauzatu beharreko jarduerak. Dokumentua bukatzeko, balantze ekonomiko bat egiten da urte horietan lortuko diren sarreraren (zuragatik, zizengatik, larreengatik, ehizagatik, eta abar) eta hobekuntza eta mantenurako egin behar diren gastuen artean (bideen konponketak, suebakiak, garbiketak, inausketak, basoberritzeak, aisialdi-eremuen egokitzapena, eta abar.).

Garrantzitsua da balantzea positiboa izatea hiru eremuetan, hau da ekonomikoan, sozialean eta ingurumenekoan. Hori horrela ez bada, gerta liteke jabeak bere jabetza abandonatu behar izatea, horrek berekin ekartzen dituen arazo guztiekin: baso-suteak, izurrite eta gaixotasunak, habitat babestuen desagertzea, landa-eremuak abandonatzea jarduera ekonomikoen faltagatik, eta abar.

Ez dugu ahaztu behar, guztionak direla pentsatzen dugun arren, mendiek badutela jabea. Mendien jabeak haien kudeaketaren arduradunak dira, baina horrez gain badituzte aitortu eta errespetatu behar diren legezko eskubideak ere.



Baso-kudeaketa jasangarria Zer da baso-plangintza?



Nafarroako baso-azaleraren banaketa, jabetzaren arabera.

Nafarroan, bi baso-jabe mota aurkitzen ditugu. Alde batetik, bada baso-azalera publiko bat, toki-entitateena edo Nafarroako Gobernuarena izan daitekeena. Toki-entitateena udal eta kontzejuen herri-mendiak dira, eta Nafarroako Gobernuarena ondare-mendiak (adibidez: Urbasa eta Andia). Eta, beste alde batetik, jabe partikularren baso-azalera dugu.

Orokorrean, esan daiteke jabe partikularren jabetza azalera txikiko lurzatiak izaten direla: 2,50 hektarea, batez beste; jabetza publikoaren kasuan, berriz, lurzatiaren batez besteko azalera 440 hektarea izaten dira.

Nafarroaren kasuan, jabetza publikoko mendiak dira nagusi, baina hori ez da horrela Espainiar Estatuko gainerako lurraldeetan; izan ere, Espainiar Estatuan jabetza pribatua da nagusia: baso-azaleraren % 70 pribatua da eta % 30 publikoa.